

Louis XVI. heriotzaren 2. mendeurrena

Erregimen Zaharraren amaiera

Orain dela 200 urte Parisen hil zuten botere iragan baten ordezkari nagusi zena

Goiz honetan, 10.30etan Concorde plazan, Parisen, hil zuten toki berean omenaldia eskainiko zaio Louis XVI errege zenari. Ekintza ofizialak gobernu sozialistak debekatu arren oposizioko batzuek eta erregezale gutxiengo batek ekitaldian parte hartuko dute.

L. ETXEHARRETA / BAIONA

Louis XVI errege borbondarraren heriotza astelehen goiz batez gertatu zen, 10.22etan, 1793ko urtarrilaren 21ean. 1789. urtean hasi zen sistema erregearen ezabatzearen bururapen logikoa agertzen da gaur. 200 urteren buruan gogoeta berriak plazaratzen dira ikusiz Frantziak guztiz huts egin zuela monarkia konstituzionalaren sistema, gaur Europako estatu askoren egitura dena oraindik.

Aipatzen da ere orduko Europari gerraren bideak luzarako zabaldu zaizkiola Frantziako Iraultzak bortizkeriaren aukera eginenez. Orduko borbondarrek, Espainiatik Austriara Europako lurralde askoren gobernaritza zeukaten. Frantziak erregea baztertu Europako batasun bideak baztertu zituela luzarako, 'estatu-nazio' menperatzaile, nazionalistei bidea zabalduz baten batek aipatzen du gaur. Horrela esan daiteke orain arte, 1993ko Europa arte estatuen artean, hainbeste gerra odoltsuen bidez, Louis XVI.aren heriotzak markatu apurketak jarraitu duela.

Historia-fikzioaren tentaldia handia da Frantziako Iraultza garaia begiratu. Pariseko hirian ziren Komiteen arteko oreka aldakorrek egoera nahasi hartan 1792, 1793 eta 1794. urte mingarrietan gauza asko alda arazi zituzten.



Manifestaldien beldurrez soldaduen erdian hil zuten.

ERREPUBLIKAK ERREGETZA BAZTERTU 1789.eko maiatzean Frantziako Erresumako 'Estatu Orokorrak' biltezarekin hainbat aipatu krisi po-

litikoaren nabarmentzea lortu zen. Honen etapa nagusiak ziren Pariseko Bastille gaztelua hiritarrek hartzea, uztailaren 14ean, 'pribiulejioen ezabatzea' abuz-

tuaren 4ean eta 'Giza Eskubideen Deklarapen Unibertsalaren' azaltzea. Maiatzeko 'Estatuak' uztailaren 9an 'Asanblea Nazionala' bilakatu ziren. Erregea Versailles-en uztera bortxatu zuten urriaren 6ean. Udazken horretan argi zen 'Iraultza herrikoia' bidean zela.

1790.eko urtea Frantziako monarkia konstituzionalaren saioaren garaia zen. Baina ekonomia krisia gehitu zitzaion botere politikoarenari, aterabideak itxiz. 1791.ean estatu frantziar berria, 'estatu nazioa' sortu zen, Konstituzio berriarekin. 1792.ean krisia larritu zen gerra mehatxuarekin. Erregea ihesi joan zen ekainaren 20ean baina bidean Varennes-en atxilotu zuten.

Udan gerraren hasteak erregetzaren bukaera ekarri zuen. Tentsioa handituz zoen. Duda asko agertzen zituen erregeak buru egin nahiz bere 'vetoekin' Asanbleak sortu botereari. Tui-

✓ Abokatuak izanik ere bere buruaren defentsa txarra egin zuen erregeak, gauzak nahasiz eta maiz hutsak eginez.

leries jauregia abuztuaren 10ean iraultzariak hartu zuten zaindarien sarraski handiarekin. Irailan apaiz edo noble presoekin sarraski handia gertatu zen. Ordu berean errepublikarrek buru egin zioten etsaiari Valmy-ko garaipekin. Egun berean I. Errepublika sortu zen irailaren 20ean.

Tuileries jauregian aurkitu paper batzuen aitzakiarekin epaitu zen erregea, abuztuaren 10eko heriotz ugarien erantzule jarri. Burutik buru 'Louis Capet' deitu zutenaren auziak auzi politiko baten itxura dauka gaur egungo historialarien ustez. Abenduaren 11an hasi zen auzia 'Convention' Asanblearen aurrean. Abokatuak izanik ere bere buruaren defentsa txarra egin zuen erregeak, gauzak nahasiz eta maiz hutsak eginez. Louis XVI.ak ezin izan zuen heriotza uxatu.

Bildutako deputatuek hobendun deklaratu zuten erregea. Penari dagokionez 720 deputatuak bederazka 24 orduz mintzatu ziren. Gutiz hiltzera kondenatu zuten: 361 alde ziren. Hauen artean 46k dudak agertu zituzten penari buruz. Urtarrilaren 20a zen. Erregea biharamunean eraman zuten 'Iraultzaren plazara' hil arazteko. Karosa batean eraman zuten. Hil taularen gainera iritsi zelarik zerbait erran nahi zuen baina danborrada batek hitzak ito zaizkion. Erran omen zuen «ene odolaz dadiela Frantziaren gainera eror».

Gaur ez zuten hilaraziko

L.E. / BAIONA

■ Frantziako prentsan azken egun hauetan Louis XVI errege zenaren kasuari toki eman zaio. 'L'Express' edo 'Le Nouvel Observateur-ek' dossier bereziak egin dituzte, heriotza horren zehazki kontatzeko edo erregeari egin zitzaion auziaren bidegabekeriaren plazaratzeko.

Inkestak ere egin dira gaurko frantziarrek zer zioten erregearen hobendun izateaz edo gehienbat galdera baten inguruan «Erregea

hilarazi behar zenez». Gehiengo handi batek agertzen du «ez zela beharrezkoa» eta gehienbat «bestela egiten ahalko zela» adierazi zuen.

Jakina da 'Frantzia sakonean' errege edo enperadoreen oroimena indartsu dela eta jende askok interes handia duela auzo erresumetako errege, erregina eta gorteen gora beheretaz. Ikusiz zer oihartzun eskasa duten alderdi politiko erregezaleek, duela 100 urtekoari alderatuz, politika mailan ez daukate bizirik.

Erregezale guti Concorde plazan

L.E. / BAIONA

Goiz honetan heriotza orduari jarraikiz, 10.22etan hil baitzen erregea, jende bilaldi bat izango da Parisen, gilotina eraiki zuten toki berean. Toki hau Concorde plazaren lorategiaren da, Tuilerieseko buru batean, Tuilerieseko Jauregia zen, 1871n erre zutena. Hor zen garai hartako erregearen Gobernu.

Ekitaldi ofizialaren ospatzeko gogoia duela zenbait hilabete agertu zuten eta horretarako batzorde ospetsua sortu zuten pertsonalitate batzuek. Alde batetik, Kultur Ministerioak jakinarazi zuen iaz «Iraultza garaieran ospakizun guziak 1989an ospatuak zirela. Eta bestetik, Jean Raspail eskuin muturreko idazleak 'Le Figaro' egunkarian «nazioko mugimendu zabala» deitu zuen «Louis XVI erregearen sakrifizioa ospatzeko».

Erregetiar diren alderdien ahots guti batzuk baizik ez dira

entzuten. Ez dute ofizialki parte hartuko Concorde plazako bilaldian. Pariseko Kondeak, Frantziako koroaren hartzaile daitekeenak Versaillesen izango den meza batean hartuko du parte soilik.

Horrela Frantziako I. Errepublikaren lehen urteko egun ospetsu hau, orduan '2 Pluviose' deitu zutena, ez da gaur urtarrilaren 21 arrunt bat baizik. Orduko astelehen goiz hotza, Europaren bilakaera horrenbeste markatu zuena, inor gutik ospatuko du Europa berrituan.



Turisten gune bilakatu da Errege hil zuten tokia.

L.E.